

GAZTE HEZKUNTZAKO TEKNIKARIA/ TÉCNICO/A DE EDUCACIÓN JUVENIL

Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko buruaren zuzendaritzapean, hauek izango dira egin beharreko funtzio nagusiak:

- GAZTEZULOko (herriko gaztelekuko) hezitzailea izan (asteazkena, osteguna, ostirala eta larunbatetan).
- LH3-4-5-6 eta DBH 1-2-3-4ko gazteak ezagutu, beraiekin eskuhartze zuzena egin eta programa eta ekintzak garatu.
- Haur eta nerabeen partehartzea sustatzea.
- Gaztematikako printzipioetan oinarritutako PSZ zerbitzuaren antolaketa eta garapena bideratzea..
- Sailburuarekin etengabeko koordinazioa egitea.
- Herriko beste eragileekin harremana izatea (hala nola ikastetxeak, guraso elkarteak, kale hezitzaileak, e.a.).
- Zerbitzuko programazioa diseinatzea, egikaritzea eta ebaluatzea.
- Zerbitzuko balorazio txostenak idaztea.
- Zerbitzuko administrazio lanak egitea.
- Zerbitzuaren Komunikazioa lantzea eta sare sozialak elikatzea.
- Zerbitzuko materiala eskatu eta zaintzea.
- Gazteria Sailak antolatzen dituen ekintza eta programetan parte hartzea, tartean Hezkuntza-Gazteria Mahaian parte hartzea.
- Arrisku egoeran egon daitezkeen haur eta nerabeen jarraipena egitea.

Ezinbesteko baldintzak:

- Bereziki baloratuko nuke GIZARTE HEZITZAILE GRADUA (edo baliokidea), hori baita lanpostu honetara bideratutako formazio espezifikoa.
- Euskara: 3. Hizkuntza eskakizuna (C1).
- SEXU DELITUGILEEN ERREGISTRO ZERNTRALAREN (SDEEZ) ZIURTAGIRI NEGATIBOA

Baloratu beharreko baldintzak:

BALORATUKO DIRA: Gehienez 40 puntu:

1.- Esperientzia: gehienez 20 puntu.

- Edozein administrazio publikotan edo enpresa pribatuan emandako zerbitzuengatiko esperientzia. Eskaintzen den lanpostuarekin antzekotasuna duten lan esperientziak bakarrik baloratuko dira:

- Administrazio Publikoan: A2 azpitaldean zerbitzuko egun bakoitzeko 0,25 puntu emango dira.

- Administrazio Publikoan: C1 azpitaldean zerbitzuko egun bakoitzeko 0,15 puntu emango dira.

- Enpresa pribatuan: Lizentziatura edo Diplomatura titulua duen kategoriako zerbitzu-egun bakoitzeko 0,10 puntu emango dira

- Enpresa pribatuan: Batxiller, Lanbide heziketako teknikari edo baliokidearen titulua duen kategoriako zerbitzu-egun bakoitzeko 0,05 puntu emango dira

2.-Prestakuntza: gehienez 10 puntu.

- Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza, emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, puntu 0'5, betiera ikastaroak deitutako lanpostuaren eduki funtzionalarekin bat etorri gero.

3.- Elkarrizketa: gehienez 10 puntu.

*Elkarrizketa egingo zaie esperientziaren eta prestakuntzaren emaitzak batuta puntuazio altuena lortu duten 6 lehenengoei.